

katu gabe, horrekin guztiarekin bizitzera ohituta nago. Errusia ez da pertsona zoriontsuen herrialdea. Hori aldarazi nahi du Putinnek: zoriontsu izan ordez, aberriaz harro egotea nahi du. Eta pentsatu zuen denek erosiko ziotela hori, eta Ukrainaren aurka joango zirela, «ukrainarrak faxistak direlako», baina zoriontasunik gabeko jendearen aber-tzaletasuna ezin da izan zure oinarria. Batez ere saldu nahi duzunean herri hau maite dutela eta gobernu hau maite dutela, halaber. Baina jendeak bizimodu normala bizi nahi du.

«Edozein intelektual ukrainar dago arriskuan orain; gutako zenbait ere hil dituzte dagoeneko»

«'Erle grisak' liburua ez zuen oso harrera ona izan Ukrainan. Separatistez idaztea leporatu zidaten»

«2005ean debekatu zituzten nire liburua Errusian lehenengo aldiz, eta 2008an gero, berriro ere»

Ukraina faxistaren propaganda horren aurrean, herri libretzat, ia gobernaezintzat aurkezten duzu zuk.

Bai. Ukrainan izan zen inoizko armada anarkistarik handiena, Nestor Makhno buru zuena, 1918an. Jendea indibidualista da, ez du loroak bezala manifestazioan joan nahi, esloganak errepikatzen. Horregatik ditugu lauhun alderdi politiko Ukrainan. Ezin dituzu, Errusian bezala, ia alderdi bakar batean egotera behartu.

Azken lana ukraineraz argitaratu duzu, eta ez errusieraz.

Zintzoki, ez litzaidake normala irudituko gerra betean hala argitaratzea. Errusia bombardatzen ari da errusieraz egiten duten herriak, argudiatuta errusieraz egiten duten hiztunak defendatzen ari dela. Lehen ere beste liburu bat argitaratu nuen ukraineraz. Etor-kizunean, ikusiko dut, baina orain bertan ez daukat irakurlerik Errusian; beraz, ezin haiez kezkatu. 2005ean debekatu zituzten nire liburua lehen aldiz han, gero 2008an, eta 2014an galarazi zuten nire liburua Ukrainatik Errusiara eramatea.

Eta zer egin behar lukete Ukrainan bizi diren eta errusieraz egiten dutenek?

Ukraineraz ere ikasi beharko lukete. Bizi zaren herrialdeari diotzun errespetua da kontua.

Landuraren ehundura

Irati Majuelo

Jose Luis Otamendiren liburu berri bat ospakizun izan ohi da gurean. Munduaren bazterrei eta edertasun keinu txiki behatzeko duen gaitasunak ibilbide oparoa eskaini dio orain arte, literatura umiltasunez baina letra larritz ekarriz irakurleari. *Landura* jarri dio izena azken lanari, zeharraigia, gandua, lausoa den horrek ikusarazten eta ezkutarazten dizkigunak agertu nahian. Begiradari berari materialtasuna atxiki nahian.

Objektuek, alde horretatik, garrrantzi handia hartzen dute bilduma honetan, *Gauzetan* poeman bertan argitzen duenez. Egunerokotasunaren bideetan dabil Otamendi, ilar-patatei eta garbigailuari adi, denboraren joanari edo herri honen itxi gabeko zauriei bezainbat. Eredu domes-



'Landura'

Idazlea: Jose Luis Otamendi.
Argitaletxea: SUSA.

tikotik egiten du hitz poeta etxekotuak, eta elementu, objektu, gauza horiek baliatzen ditu bai pandemiak eta baita gorputz-gogo adindu batek piztutako pentsamenduak, beldurrak, oroitzapenak, itxaropenak azalertzeko. Ez da itxialdiari buruzko bilduma bat soilik, eta nabari da ez duela izan nahi; baina egia da ere oihartzun nabarmena sumatzen dela poema ugarritan, konfinamendua igaro eta handik bi urte eta erdira haren digestio geldoa iradokitzen dutenak.

Horrela, «mende biren arteko ibi estuan» kokatzen du bere burua poetak, mundu zaharretik berri bateranzko lekualdaketa, trantsizio horren kodeak deszifratzen. Adinak dakarren esperientziak kokagune bat ematen dio ahots poetikoa garatzeko, eta hala, aldizka nostalgiaz, aldizka eskarmenez egiten dio so iraganari, etorkizunari, orainari. Bere burua desenkusatzeko du sarri, adore eza eta suhartsun galdua aitortuz, gizaki egiten gaituzten akats horiek agertzeko beldurrik gabe. Beste patxada batekin begiratzen die gaztetako ametsi, ahaztu gabe beti borrokarako, lerratze beharra, pribile-

gioen jakitun. Otamendiren poesiaren bereizgarri izaten jarraitzen baitute justizia sozialarekiko zein bidegabekeriaren aurkako senak, gizatasunak eta, batez ere, umildadeak. Behin eta berriz nabarmentzen da bere izaera diskretua maitatzeko, borrokatzeko, idazteko duen eran. Indibiduaren eta kolekti-boaren arteko dialektika horretan, garai berriek dakartzaten talketan murgiltzen da.

Laburbilduz, geruza ugariako poemak direla esan daiteke, hiztegi bereziki aberatsa baliatuta, egunerokotasuneko tonu arina erakusten dutenak, batetik, baina ideia sakon eta kezka filosofikoekin korapilatzen direnak aldirio, artefaktu konplexua jarri irakurlearen esku artean. Askotan zail egiten da ehundura horretako maila guztietara iristea, izan landurak lausotzen duelako ulermena edo poema gehienek ez dutelako ideia edo gai bakarra gordetzen. Hala, eman dezake sententzia nahas-mahas batena, poema bakoitzak poema asko biltzen dituenarena edota irudi dezake liburu osoa dela bere horretan poema bakar bat.

Altxa dezagun aingura

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Alandar sariketan XIX. edizioaren irabazlea, irakurlea bere burua aztertzeraz gonbidatzen du, automatizatutako hainbeste ekintzen artean maiz noraez dabilen barkua dirudigulako, edo.

Narratzaileak bere buruari jarri dion zeregin nagusia João ertratatzeko da, bereziki João duen bizimoldea, zeinak, azken buruan, gure gizartearen antipodetan dagoen bizimoldea/bizi filosofia ordezkatzen duen.

Narratzailea Miguel da. Bere begietatik biziko ditugu narrazio gertakariak, bere buru-bihotzetik jasoko ditugu hausnarketak. Miguel azalpenetan luzatzen den ahotsa da, hari

nagusiari itzuri egiten diona etengabe, pertsonaien emozioak, keinuak eta interakzioak eskaintzen, lekuak eta denboraren iragateak markatzen.

Azken buruan Miguel kronikaria da, ia besterik gabe, Joãoen



'João'

Idazlea: Paloma Gonzalez Rubio.
Itzultzailea: Aitor Arana.
Argitaletxea: Ibaizabal.

kontrapuntua egiten duena itsasoko eta lehorreko dikotomia errazago uler dezagun.

João harkuntza guztiak nahi-sirik hitz egiten zuen, azentu portugesarekin. João, barku batean jaioa, itsasoarekin lotuta betiko. João ez dugu zuzenean ezagutzen. Ezin ditugu bere pentsamenduak entzun, misterio bat da, zeharka baino ezagutuko ez duguna. João irakurlearen jakin minak eraiki behar duen bizimodu bat da, itsastarren mundua da. João, liburu honetan, idazleak proposatzen digun nortasunaren deseraikitzea gauzatzeko eredu lagungarria da.

Ama ere badu Joãoak, Belem izenekoa. Belemen ahotik jasoko ditugu itsastarren topikoa nagusiak, arrazoimenaren iturbegitik jariatutako baieztapen zurrunkak eta, batik bat, lehortarren bitzta mespretxatzeko itsastarrek erabiltzen dituzten argudioak. Belem itsasoarena baita, jada atzerabiderik ez duen hau tuaren emaitza.

Pertsonaien taldea osatzeko bi partaide gehiago ditugu, Miguelen ama, Carmen, eta Miguelen arreba, Ines.

Hasiera batean bigarren mailako aktoreak dirudite, baina, gainerako pertsonaiek bezalaxe, ar-

ketipo jakinen funtzioa betetzen dute.

Carmen Belemen kontrapuntua da, haren ispilu lehortarra. Seme alaben (familiaren) ardatz nagusia da eta, ekintzek aurrera egin ahala, lehortarren ikuspuntua zorrotzen defendatzen duena, gainera etorri zaien itsastarren bizimodu limurtzailearen aurrean. Carmenen defentsa jarduna irrazionala da, ordea, arrotz zaion itsasoko biztanleen aurrean, argudioak baino gehiago, estrategia erabiltzen duena.

Azkenik Ines dugu, nire uste-tan gutxiegi landutako pertsonaia. Inesek bi munduen talkaren ondorioak jasaten dituen pertsonaia ahula da, maitemina bizimodu ez itsasoko ez lehorreko batean jarriko duena, eta, ondorioz, amiltzera kondenatua da goena.

Liburuan behin eta berriz errepikatzen zaigun metafora hona ekarri. istorio honek eskaintzen diguna da paraleloan gauzatzen den bizitzeko molde itsastarra gurearekin kontrajartzea, kontrastean irakurleak bere burua *lasta* ahalik eta gehienaz aska dadin, izateko pertsona ahalik eta burujabeena, ahaztu gabe elkarrekin osatzen dugun sarea dela gure ondare preziatuena.